



Recurso 2/2013 Errekurtsoa
Resolución 2/2013 Ebazpena

Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Bokala / Vocal

M^a Aránzazu Arana Learte

Bokal idazkaria / Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa, 2013ko maiatzaren 14an eginiko bileran, goian adierazitako kideak bertan direla, segidako erabakia hartu du aho batez.

El Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada el día 14 de mayo de 2013, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

ANTECEDENTES DE HECHO

Auzitegi honetan, 2013ko maiatzaren 14an, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Organo Administratiboa bidalitako idatzia jaso zen eta, horrekin batera, GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA SAU sozietateko Administrazio Kontseiluaren 2013ko martxoaren 21eko erabakiaren kontra URBASER SA enpresak kontratazio alorrean jarritako errekurtso bereziari buruz aipatutako organoak maiatzaren 9an emandako ebazpena. Izan ere, aipatutako erabakiaren bitartez “Bio-hondakinak eta konposta lortzeko tratamendu zerbitzurako akordio markoa” delakoren esleipen prozeduratik kanpo utzi zen URBASER SA enpresa, ez zuelako betetzen eskatutako kaudimen teknikoaren baldintza.

El 14 de mayo de 2013 ha tenido entrada en este Tribunal un oficio del Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi por el que se remite la Resolución adoptada el 9 de mayo por dicho Órgano en el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la empresa URBASER, S.A. contra el acuerdo del Consejo de Administración de GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, S.A.U. de 21 de marzo de 2013 que excluyó a dicha empresa del procedimiento de adjudicación del “Acuerdo Marco para el servicio de tratamiento de biorresiduo y obtención de compost” por no reunir el requisito de solvencia técnica exigido.

Ebazpenarekin batera errekurtsoa eta dokumentazioa jaso ziren.

Junto con la resolución se ha remitido el recurso y la documentación unida al mismo.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Organo Administratiboa ez du errekurtso hori onartu bere eskuduntzako gaia ez delako, Gipuzkoako Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboari dagokion gaia baita.

El Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi inadmite el recurso por entender que no es de su competencia, sino del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales de Gipuzkoa.

Kontuan hartuta 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duenak,

Considerando de aplicación el párrafo segundo del artículo 41.5 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público aprobado por Real

41.5 artikuluko bigarren paragrafoan dioena aplikatu behar dela, hau da: *“Erakunde kontratatzailea administrazio batekin baino gehiagorekin lotuta baldin badago, kontrola edo parte-hartze handiena daukan erakundearen kasuan eskuduna den organoak izango du errekurtsua ebazteko eskumena, eta erakunde guztiek edo batzuek parte-hartze berdina baldin badaukate, paragrafo honetako arauei jarraiki organo eskudun direnen artean errekurtsogileak aukeratzeko duenak”*, ebazpenak aztertzen du zein den Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioan gehienezko partaidetza edo kontrola duen administrazioa, eta ondorioztatzen du Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiola gehienezko partaidetza Kontsortzioaren Estatutuen arabera; beraz, ebazpenak dioenez, errekurtsua erabakitzeko eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuduntza esparruko organoarena izango da, hain zuzen ere, 2010eko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuak 2.1 artikuluan ezarritakoaren arabera sortu eta araututako Kontratazio Alorreko Errekurtsioetarako Foru Auzitegi Administratiboarena.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Beste ezeren aurretik beharrezkotzat jotzen da aztertzea auzitegi horrek eskumena duen bidalitako errekurtsoaz arduratzeko.

Inpugnatutako erabakiaren oinarrian zegoen esleipen prozedura kide bakarreko sozietate anonimo batek sustatu zuen, zehazki, GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA SAU sozietateak (hemendik aurrera GHK), eta horren kide bakarra Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa da, haren zerbitzu teknikoaren eta baliabide propioaren izaera duena, hain zuzen ere, SPKLTBko 24.6 artikulua arabera.

Beraz, GHK sozietatea esleipen ahalduna da SPKLTBko 3.3.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, baina ez da herri administratuztat jotzen.

Beraz, kontratazio alorrean GHK sozietateak sustatutako esleipen prozeduretan jarritako errekurtsu bereziaz arduratzeko eskumena duen organoa zein den zehazteko, SPKLTBko 41.5 artikulua lehene paragrafoan ezarritakoa aplikatu behar da eta hau dio paragrafo horrek: *“errekurtsuak herri-administratuztat jotzen ez diren botere esleitzailen egintzen aurka jarri direnean, aurkaratutako egintza sortu duen erakundearekin lotutako administrazioaren kasuan eskumen hori daukan organo independentea izango da eskuduna”*.

Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre (TRLCSF), a tenor del cual *“si la entidad contratante estuviera vinculada con más de una Administración, el órgano competente para resolver el recurso será aquél que tenga atribuida la competencia respecto de la que ostente el control o participación mayoritaria, y en caso de que todas o varias de ellas ostenten una participación igual, ante el órgano que elija el recurrente de entre los que resulten competentes con arreglo a las normas de este apartado”*, la resolución entra a analizar cuál es la Administración que ostenta el control o participación mayoritaria en el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa y llega a la conclusión de que, según los Estatutos del Consorcio, la participación mayoritaria corresponde a la Diputación Foral de Gipuzkoa, por lo que el órgano competente para resolver el recurso será aquél cuyo ámbito de competencia se extienda a la Diputación Foral de Gipuzkoa, es decir, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales creado y regulado por el Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre (artículo 2.1).

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Antes de nada es preciso examinar si este Tribunal es competente o no para conocer del recurso remitido.

El procedimiento de adjudicación en el que recayó el acuerdo impugnado fue promovido por una sociedad anónima unipersonal, GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, S.A.U (en adelante, GHK), cuyo único socio es el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, y que ostenta la condición de medio propio y servicio técnico de éste, en el sentido del artículo 24.6 TRLCSF.

Por tanto, GHK es un poder adjudicador de los contemplados en el artículo 3.3.b) TRLCSF, que no tiene la consideración de Administración Pública.

De modo que para determinar cuál es el órgano competente para conocer de los recursos especiales en materia de contratación interpuestos en procedimientos de adjudicación promovidos por GHK hay que aplicar lo dispuesto en el párrafo primero del artículo 41.5 TRLCSF, a tenor del cual *“cuando se trate de los recursos interpuestos contra actos de los poderes adjudicadores que no tengan la consideración de Administraciones Públicas, la competencia estará atribuida al órgano independiente que la ostente respecto de la Administración a que esté vinculada la entidad autora del acto recurrido”*.



Horrela, bada, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa da GHK sozietateak lotura duen administrazio bakarra, eta, kontuan hartuta udal mankomunitate batzuek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak osatzen dutela kontsortzio hori hiri hondakinen altako kudeaketa alorrari dagokionez, toki erakunde bati aplikatu behar zaio toki araubidean ezarritako araubide juridikoa, hori agintzen baitu Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen 2007ko apirilaren 10eko 6/07 Foru Arauak 18.4 artikuluan.

2010eko ekainaren 18ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako kontsortzioaren estatutuek argi uzten dute ondorengo artikulua hauetan, besteak beste, kontsortzioa tokiko erakundea dela: 5. artikuluan (antolakuntza, funtzionamendua eta araubide juridikoa), 9. artikuluan (zerbitzu publikoak kudeatzeko moduak), 19. artikuluan (gaikuntza nazionala duen tokiko administrazioko funtzionario baten kargura egongo da idazkaritza), 23. artikuluan (ondasunak), eta 24. artikuluan (aurrekontuak).

Hala ere, 2010eko abenduaren 23ko 5/2010 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2011. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituenak, zortzigarren xedapen gehigarrian, zeinaren 1. atalean Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa sortzen den, 2. atalean xedatzen du organo horrek eremu hauetan gauzatuko dituela bere eginkizunak: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan eta “*erkidego horren lurraldean dauden toki-administrazioetan*”, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren kasua, hain zuzen ere.

Ondorioz, auzitegi honen iritziz, kontratazio alorrean, GHK sozietate kontratatzailearen ekintza baten kontra jarritako errekurtso berezi batez arduratzeko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Organo Administratiboari dagokio, organo horrek baitu eskumena Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari dagokionez.

Kasu honetan ez da aplikagarri SPKLTBko 41.5 artikulua bigarren paragrafoa, GHK sozietatea ez dagoelako lotuta administrazio batekin baino gehiagorekin (paragrafo horrek aipatzen duen kasua), baizik eta administrazio bakar batekin eta, berriro diogu, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa da, tokiko erakundea, hain zuzen.

Ondorioz, Kontratazio alorreko Errekurtsoetarako Foru

Pues bien, la única Administración a la que está vinculada GHK es el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, que en la medida en que está constituida por varias Mancomunidades de Municipios y por la Diputación Foral de Gipuzkoa para la gestión en alta de los residuos urbanos, es, según el artículo 18.4 de la Norma Foral 6/2007, de 10 de abril, reguladora de las entidades de ámbito supramunicipal del Territorio Histórico de Gipuzkoa, una entidad local a la que le es de aplicación el régimen jurídico establecido en la legislación de régimen local.

Los propios Estatutos del Consorcio publicados en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 18 de junio de 2010 dejan clara su naturaleza de entidad local en artículos como el 5 (organización, funcionamiento y régimen jurídico), el 9 (formas de gestión de los servicios públicos), el 19 (secretaría a cargo de un funcionario o funcionaria de Administración Local con habilitación de carácter estatal), el 23 (bienes), o el 24 (presupuestos).

Ahora bien, la disposición adicional octava de la Ley 5/2010, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 2011, en cuyo apartado 1 se crea el Órgano Administrativo de Recursos Contractuales, establece en su apartado 2 que el ámbito en el que dicho órgano ejercerá su función abarcará la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi “y las administraciones locales integradas en el territorio de dicha Comunidad”, como lo es el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.

En consecuencia, a juicio de este Tribunal, la competencia para conocer del recurso especial en materia de contratación interpuesto contra un acto de la entidad contratante GHK corresponde al Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, por ser éste el que la ostenta respecto del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.

No es de aplicación en este caso el párrafo segundo del artículo 41.5 TRLCSP, porque GHK no está vinculada con más de una Administración, que es el supuesto que contempla ese párrafo, sino con una sola, que es, repetimos, la entidad local Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de

ERABAKITZEN DU

ACUERDA

LEHEN.- . Aitortzea auzitegi honek ez duela eskumenik URBASER SA enpresak kontratazio alorrean jarritako errekurtsu bereziaz arduratzeko.

BIGARREN.- Itzultzea errekurtsuaren jatorrizkoa eta bere dokumentazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Alorreko Errekurtsuotarako Organo Administratiboari.

Kontratu Legeko 49.1 xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

PRIMERO.- Declarar la incompetencia de este Tribunal para conocer del recurso especial en materia de contratación interpuesto por URBASER, S.A.

SEGUNDO.- Devolver el original del recurso y su documentación al Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.1 TRLCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

Donostia, 2013ko maiatzaren 14